

[BETI GAUDE EUSTEN]

Beti gaude eusten edo
beti gaude hasten
–sarritan naiz ahazten–,
nekea zein etsaia
zaigu iristen maiz,
lorpenak hain zaizkigu
erraz eta usu hausten
[gutxi badugu alde,
askoak gaitzesten]

Hoztu ere luzaro
gabe gara hozten
behar hainbat defentsaz
ez gara babesten
gure etsaiak ostera
ez du inoiz esten
zimiko ta hezten
laido ta gaitzespen
sarri ez dakit nola
ez garen tolesten

Ematen du, baina ez gara
luzarorako jausten,
gure errendiziorik
ez dute iristen
ez iritsiko ere
ez badugu esten

Hain beti aldatzgora
beri kontra korrontez
beti aldazgora
behar hainbat babeskiz
ez gara inoiz jazten

Beti gaude eusten edo
beti gaude hasten
–sarritan naiz nahasten–
euskaldunon lorpenak
erraz dira jausten
gure berotasuna
agudo da ozten

Etsaiak geu gaitzezen
ez digute uzten
irten bideak oro
diskigute mozten
ez eusle ez sosten

Hala ta guztiz ere
ez dugu lanik eta
ahaleginik uzten
eta beti gaude eusten edo
beti gaude hasten